NAFAR - IZKUNTZAN ORRIA

Isidoro Fagoaga, bera'tar gizon ospetsua ta bere liburutegia



Isidoro Fagoaga Beratar gizon ospetsua. (Aida argazkia).

Isidoro Fagoaga, Napar euskalzale ta Idazle ospetsuaren adiskideak kezkaturik gabiltz aspaldi ontan.

Gizona onen bizitza, lanak eta idazkiak, zer esan aundia daukate. Bere erria ta gizartea aberastuta uzten ditu eta bere ekintza guzti oien aztarnak balio aundia dute. Ia larogei urte inguruan dabil eta bere bizitza luze orren amaitza, ugaria, ederra, zoragarria izan da. Gure idazle ospetsua ba dijoakigu, bainan berak utziko ditu emen, esan aundiko gauza batzuek eta balio aundikoak diranak gaiñera; bere lanetarako erabilli dituan gaiak. Onekin esan nai degu, liburutegui on bat uzten dula, baita ere bere Opera garaiko lantziak, eta bere lagun ospetsuen oroigarriak. Mingarria izango litzake, bere gauza eder oiek ludiko lau muturretan sakabanatuak gelditzea. Inglaterra edo Alemaniaán bizi izan ba'litz, zainduko lituzkete bereziki ta azkar asko. Orrelako gizon baten bizitzak, erri batentzat balioa bai daukate ta bere gauzak esan nai aundia.

Merezi du erriak jakitea nolako liburutegia daukan gure Isidoro'k. Elerti aldetik bere liburutegian gauza asko daude, ibilli aldi ta ipui gaiak elebarriak, batez ere ereslarri Buruz, Euskalerriko gaiekin beste libutu asko. Eresi partituretan zer esanik ez; Wagner osorik, beste gaia asko alemanez eta italianoz. Ba ditu ludi ontako gizon ospetsuek emandako idazki asko, batez ere, Sigfrido Wagner, Gaiarre, Toscanini, Mariaño'ri eta abar; garai ontaño idazle askoren eskutitzak ere bai.

Gaia guzti auek sakabanatu ezkero, asko galduko genuke ta Isidoro Fagoaga'ren nortasuna ta lanak nolakoak diran ezagutzeko, merezi luke dan danak batean gordetzea.

Gure gizon au, aritze eder baten antzekoa degu ta geroak jakin dezan nolakoa genuen gure zugaitz sendo ori, bere adar ta osto guztiak batean bear genituzke euki.

Berak naikoa egin du, orain emaitza aundi ori zaindu bearra daukagu. Ez daude danak lo. Batzuek bere atzetik dabilt gauza batzuek edo besten eske. Bere liburutegia onera edo erat eraman nal dute. Guk berriz, bere adiskide talde batek, nai deguna da, bere gauza guztiak, dan danak, BIDASO'KO BERA'N gelditzea. Isidoro Fagoaga Bera'tarra da ta bere sorterria maite du benetan; guk berdin. Uste degu gure idazlearen gauzak Bera'n geldítu exkero, bere sorterria ederragoa, aberatsagoa izango litzakela oraindik. Olako seme batek bere erria asko goratzen du. Iruña, Lekaroz, Azkoitia, Donostia edo Mexiko'ra eramango lituzkete. Geroak arrazoiakin esango luke, txoroak otte zeuden gaurko gizonak.

Nola gorde Bera Bidasoa'n toki berexi batean, Isidoro Fagoaga'ren liburutegia ta gauzak? Ez litzake gauza zailla izango gure ustez. Bera erria azitzen dijoa. Ikastetxe ederrak jaiotzen ari zaizkigu. Intelektual giro bat sortzen ari da ta gizarte orrek erriko liburutegia edo biblioteka bat bear du. Ba degu eredu polita bat Naparroa bertan Leiza'ko errian, baita ere Elizondo'n. Euskal kutsu aundiko ta olategi bikaina daukan Leiza'ko errian liburutegi edo erriko biblioteka bikaina ikusi dugu, atsaldetan irikitzen dutena ta ondo eramateko zaindari batek zuzentzen duna. Bera'n beste orrenbeste egin leike errez. Bera'k biblioteka munizipal bat bear du ta orrelako etxe bat izango litzake egokiena Isidoro Fagoaga'ren liburutegia ta gauzak eukitzeko. Ara garbi azaldu gure iritzia.

Oraintxe daukate aukerá Bera'tarrak beren erria, kultura maillean aberastutzeko. Bestela, geroago, emengo gizasemeak jakiñen dute bakarrik beren erritar gizon ospetsu bat izan zala, besterik gabe. Isidoro Fagoaga-ren liburutegia Bera'n daukatela jakintsu asko urbilduko lirake, batez ere eresi berexiaren partiturak ikustera ta erri polita onen izena asko zabalduko litzake. Garaiz bildu bear dira igaliak. Esan Dezakeguna da, Isidoro Fagoaga'ren adiskide batzuek, idatzi degun bezela iritzi au azaiduez, nai izan degula, Bidaso'ko Bera'ri bere erriari ta Naparroa'ri emaitza eder bat aurreratu eta eskeñi.

Erantzunaren zai gelditzen gera.

LATXAGA

Konzi lioaz Euskal Astekarietan



Azken denbora huntan, Elizak itzuli-buelta bat egin duela lehenagoko moldeetatik hunarat, egerian dago; zenbaitendako haatik, jirabuelta hori lasterregi egin nai izan dutela, aitzin aldera dauden apez batzuek, Vaticano-ko buruzagia bera ere kexatu da behin baino gelagoetan; bai eta, iduriz, gibelalderateko martxa puska bat ere gin erazi, zenbait sailetan.

Guk ezdugu afera hortan sudurrik sartu nai hemen; bainan ikrus dezagun bederik elizgizon zuhurrek zer dioten. Atzo artio orandik, hemen gure herrian, elizgizon geienak populuarekin ertsiegi jokatu izan dirala, fama irabazia dugtu. **«Oraindik ere Eliza aipatu eta, ezdute Aita saindua besterik ikusten, erregea bezala gain hartan denen nagusi. Harek izendatu apezpikuak, gobernadore batzu bezala, eta apezak, horien mutil».**

«Beste sail batean, horien denen meneko populua, artaldea bezala; ardi tropa bat, egitekorik deus ere gabe, ter, ter, ter, artzaineri segi». Itxurapen hori dena, ezdut nik burutik atera, J. Hiriart-urruty apez idazle argiaren itzak baitira, BURUNDI-n misiolari orai artio egon denarenak. Eta segitzen du:

«Ez da hori egiazko Eliza. Azken Konzilioak Eliza aipatzen daukularik, ez da Aita saindu, apezpiku eta apezetarik hasten; bainan lehen lehenik Eliza dela Jainkoaren populua erakasten dauku; bataiatu guziak populu hortan barne dira; bataioaren bidez, denek dute, Apez bakarra den Jesukristoren apeztasunean parte hartzen.

Apezak gutituz doazila (dio Hiriart-urruty hazpandarrak HERRIA-n) ondoko egunetan izanen ote denetz apezik aski, ainitzek hori dute arrankura. Eta arrazoinekin. Hala ere, hori bezain beharra edo beharragoa zaut beste galde hau; kristuak ohartzen direia Elizaren bizia eta Eli zaren lana beren gain dituztela?

«Apez eskasa makur handia da; bainan naski handiagoa apez soberakina; kristauak orduan lokartzen baitira, eta Eliza-lan guztia apezari uzten: «berma dadila apeza, hortako pagatzen diaguk, ezdik bertze egitekorik».

«Eta bestalde apezak, sobera direlarik, erdi alfer bizi, jende xehearen bizkarkin. Apez eskasa delarik, aldiz, girixtinoak iratzar diten gerta ditake, eta gauza asko egin behar dutela ohart, ordu artio apezen gain uzten zituztenak.

«Hemen berean aipatzen nuen berriki, Afrika xoko huntan zer lan miresgarria egiten duten katixima-egile gisa, aita familiako askok. Heiek gabe ez bailitake hemen elizarik. Seminario handi batean bainaiz hemen, hiru laiko badítugu, bi aita familiako eta gizon gazte bat, apezgaleri eskola emaiterat heldu direnak.

«Heldu den urtean, jinen zauku serora bat, Filosofia erakasle. Egun batez berdin laikoak, Teologia irakasle ere izan ditazke: zertako ez? ezda apez ordenaren beharrik, Teologian jakintsu izateko.

«Aitor dezagun asko tokitan, eta Euskalherrian ere, girixtino geienak uzkur daudela; erlisionea, apezen afera daukate. Ez diotet segurki harria botatzen; frankotan gure faltaz, apezen faltaz, dira laikoak hoin herabe. Ez ote ditugu guhaurk hartu gider guziak eskuetan, eta girixtinoeri erakatsi, heiek aski zutela ixil-ixila obeditzea, otoitz egitea eta eskean emaitea?»

«Zerbait bada haatik kanbiaturik asken urte hautan eta Eskualherrian bere an ere».

«Bainan beharrena hau zaut; Elizaren zerbitzari giren guziak, lalko ala apez, elkarrekin solasta gaiten; kalapitak ezdu deus onak».

Bestalde diogu guk, Konzilioak erakutsi nai izan duela kristauen arteko batasunaren egitea zela gure eginbidea; xede berri hortan gure Aita saindua egon zen Konstantinoplan, Eliza ortodoxoaren buruzagi handia Athenágoras (orai berriki hila) ikusten; bai eta hau ere Erroman.

Anglikano-protestant Elizaren buruzagia ere izan da Alta saindua ikusten; kristau guzien batasunari buruz ari da beraz hau ere. Eta kristau batzuen eta besten arteko ezkontzak ere, ezdaude gaitzetsiak lehen bezala.

A. APAT ETXEBARNE

EUSKALERRIAN BARNA

FERMIN IRIGARAY "LARREKO" ZENARI OMENALDIA AURITZ'EN

Datorren igandean, 10 ean, Auritzeko herrian (Burgete erdaraz) Fermin Irigaray "Larreko" zenaren oroimenez "omenaldi-egun" ospatuko da.

Fermin Irigaray Goizueta zena Auritz'en sortu zan 1969'go Urtarrilaren 25 ean. Bertako alaba batekin ezkondu zan Felisa Irigaray Apat "Porkaxonea" ren alaba zena. Medikuntzarako ikasketak eginik Auritz'en, Bera'n eta Baztango Irurite'n medikuntzan ari izan zan. 1915 urtean Nafarroko Gaisotegira (Eritegia) etorri zan zirujanoa izendaturik urte batzuen ondoren Hospital horren Zuzendaria izanik.

1949 urtean Iruñean il zan lauretan ogei urte zituelarik.

Euskeraz lan aunitz idatzi zuen Euskal Herriko zenbait agerkarietan argitaraturik. Nafarroko Diputazioaren "Euskeraren Aldeko Sailla"k, bere seme den Aingeru Irigaray den mediku famatu eta Euskeraren Akademikuak bilduta-ko "Larreko" ren zenbait lanak, liburu bat argitaratu zuen 1958 urtean. **"XX-garren mendeko Nafarroa'ko Euskal Idazlariak"** da liburu honen izena. "Larreko" zen euskeraz idazten zuenean erabiltzen zuen izengoitia edo izen ordezkoa.

Gure "Larreko" zena Nafarro guzian, txit ezaguna zan eta ez Nafarroan ez ezik baita ere Euskal Herri guzian ere, dela Ipar Aldeko Euskal herrian, dela Bizkaian, Araba eta Gipuzkoan hemengo Euskal Herrian.

Errotik maite zuen gure euskera.

Euskera errazan, herrikoi, menditarren usaiez betetako hizkeran idazten zuen, Euskal Herri guzietako euskaldunak entenditzekoa.

Hona hemen haren omenez prestutako programa:

Amaiketan: Euskal Meza konzelebratua Auritzeko, Elizan.

Amabietan: "Muttikoak" delako dantza taldea aurretik joanik Agintariak, bertakoak eta Euskal Akademiarenak, "Oroit-harria" "Larreko" zenaren sortetxean agertzeko joanen dira Alkatearen agurra adituz.

Amabi t'erditan: Euskalt zaindiaren bilkura idekia, Auritzeko Herriko Etxeko Batzarre Aretoan, gai hauekin:

Euskaltzaindiaren agurra, eta hiru hitzaldi labur: **Aita Intzakoak** "Larrekoaren garaiko giroa" gaia arturik. **Piarres Laffittek,** "Larreko" euskal idazle" ari buruz, eta **Eusebio Erkiagak,** "Larreko" gizon" gaitzat edukirik.

Ordu bietan: Loizu Ostatuan, bazkaria.

Arratsaldean, errome ria izanen da herriko plazan.

Nafarrak bere euskal seme ospetsu eta aipatuei oroimenak egiten asia da. Nafarroko Diputazioak omenadi honi bere eskua, eta itzala ematen ditu, zorionez.

——o0o——

"XENPELAR" IZENEKO SARIKETAREN ERABAKIAK

Euskal-Tzaindiak urtean behin "Xenpelar" delako "Bertso-Paperen" Sariketa bat antolatzen du.

Aurtengo irabaztaileak honako hauek izan dira:

Lehen Saria: "Sortetxeari". Egilea: **Xalbador.**

Bigarren Saria: "Zar saridun batek esanak". Egilea: **Jose Ayerbe.**

Irugarrena: "Deabruren bat badago beti gertu gu zirikatzeko". Egilea: **Inozentzio Olea.**

Sariak: Amabi milla, zortzi milla eta bost milla pezetakoak dira.

Sari hauek Donostiako Euskal Festetan (egun hauetan preziski) banatuak izanen dira.

——o0o——

IKASTOLETARAKO LIBURUAK

Euskal Herriko Ikastolak gauzak behar bezala egiteko "liburutegi" bat behar dute izan. Horretarako klase guzietako gaiak artutako euskal liburuak liburutegi honetan izatea komenigarri bada oraindik egokiago iruditzen zait **"Ikastoletarako euskal liburu bereziak"** izatea. Liburu hauetakoak ugari azaltzen ari dira eta prezioak merkeak. Donostiko Iñaki Beobide da Ikastoletarako liburu hauen banakatzailea.

Lau liburu hauen izenak ekartzen ditut honera Bizkaiko "Anaitasuna" izeneko euskal agerkarian azalduak: "OGIA" izenekoa; "Gauza harrigarriak" liburu sortan argitaratu da, Jazinto Setien jaunaren ardurapean eta Ikastoleen Erakasleen Elkarteak eraginik. Liburu bilduma hontan berean beste iru liburu ere agertu dira: "ERLEAK eta EZTIA", "OLENTZARO", eta "ONDDOAK". Liburu bakoitzaren balioa: 15 pezeta.

"PRINTZE TXIKIA" izenekoa; Saint Exupery famatuaren liburua Salbador Garmendia jaunak euskeraz moldatu du. Prezioa: 75 pezeta.

"Ikastolako Hiztegia" delakoa. Erakasleen Elkarteak argitara eman du. Premiazko liburua da. 50 pezeta.

"SIKOMOTRIZITATE-HEZIKETA" deitzen dena: Erakasleen Elkarteak ere argitaratua. Barcelonako "Rosa Sensat" delako sikopedagogi bulegoak antolatu zuena orain Jazinto Setien jaunak euskeratu du. 25 pezeta.

——o0o——

EUSKAL LITERARIO SARIA

Iruñeko Caja de Ahorros Munizipalak, bere eun urte betetzea dela-ta, **Euskal Literario Sari eder bat jarri du.** Beste erdal literario sari bat ere antolatu du Erriberazko gaiak arturik.

Euskeraz idatzitakoak gai librezkoak izan behar dira, nafar idazleentzat bakarrik, eta **EHUN MILLA PEZETAKOA! (100,000 pezeta).**

Sari honen nahikizun, liburu eta asmoa da. Caja de Ahorros Munizipalak esaten duen bezala **"Estimular y honrar a los navarros escritores en vascuence y cooperar a la conservaución y práctica del idioma por la difusión de textos...".** Datorren bezala ekarri dut nafar guziek irakurri eta jakin dezaten.

Lanak eun orrialdeko luzeera gutxi gora bera izan beharko dute (Holandesatako orrialdeak). Lema batekin bialdu behar izango dira baita ere bere izen deiturak eta zuzenbideak bañoi danez sobre batean ongi itxita sartuak. **Sari hontako epea urte honen azken egunean bukatuko da, hau da 1972'go Abenduaren 31 ean.**

Mahiburukoak Euskal Akademiak izendatu ditu (halaxe nahi zuen Caja Munizipalak) eta hona hemen beren izen eta deiturak: **Haritselhar** (Seigarren Merindadeko nafarra dena), **Yon San Martn** (Euskaltzaindiaren idazkaria), **Aingeru Irigaray** (Nafar aldetikako Euskaltzaindiaren Akademikua), **Mariano Izeta** (Elizondokoa, Euskaltzailea), **Pedro Díez de Ulzurrun** (Iruñekoa, Euskalzaindiaren Laguntzailea. **Basterretxea eta Atxa** jaunak ere izendatu dira hauetatik batek sariketa hontan parte hartzera erabakitzen duen, eta mahiburukoa izen nahi ez badu.

Sari ederra benetan 100.000 pezetakoa Caja Munizipala ematekotan dagona.

——o0o——

"BAIONAKO ASTEA"

Egun hauetan, Irailaren 4, 5, 6 eta 7 an Baionako "Musee Basque" delakoan BAIONAKO ASTEA deritzana egiten ari da. Gai bereziak aztertzen eta azaltzen ari dira "Euskal Herriari" dagozkionak: Ekonomikokoak, lantegi eta lurrari buruzkoak, euskal musika eta gaurko literaturari buruzko gaiak, poesi irakurketak, eta Euskal Unibersitateaz hitzaldi, elkarhizketa eta eginnahiak. Azken gaiari buruz Santamaria eta Haritschelhar jaunak gaur, zazpigarrenean, hitzegitekotan ziran.

IKUSLE

VII PREMIO "AXULAR" 1972-1973

DIARIO DE NAVARRA, Iruña Iriburuko egunkariak sari bat eratzen du, leen maillako Nafarroko Eskolategietan, 1.500 eta 750 pezetako AXULAR izeneko bi sariekin euskarazko artikulo edo erri kontu oberenendako, euskal idatzlari nagusi aren oroitzapenetan.

Sarietan parte artzeko, baldinkizun ok bete berrak, dira:

I. Sari hontara sar ditazke eskolategiko adinean dauden aurrak. Euskeraz idatzi lantxoak igorriko dituzte. DIARIO DE NAVARRA, Pamplona. **"Para el concurso de relatos vascos"** izenburuarekin.

II. Lanak, goienaz, bi orrialde edo kuartillako edadura izan bearko du. Maisuak, Apezak edo adineko batek bearko du, bere izenekin lana baietsi, aurrak izendeiturak ezarriko ditu erriaren eta etxearen izenekin batera.

III. Kurso azkenean lantxo obereneri Axular Saria emanen zaizkie, bai aurrari, eta bai maisu edo gidariari ere DIARIO DE NAVARRA egunkariaren Euskal orrialdean, aldi bakotx argitaratu diran ipuin alpagarrienek ere. 150 pezetako sari bana izanen dute.

IV. Sarirako ipuiñaz baiño, edozein gaiaz izan ditazke: ala kontu, erri oitura edo kanta, iosteta, ibillaldi edo gertakari. Aurrek berek idatziak izan bear dute, iñoren laguntzarik batere gabe.

V. Aurrek bear, dute mintzo diren bezala idatzi. Geiago konta da sarirako errateko, airea edo gatza, utsik gabeko ortografia era baiño.

VI. Sari huntarako idatziak igortzeko epea. Garagarrillaren 15 egunean bukatzen da, Saria emanen da, eta argitaratuko, Nafarroko-Zaindaria den, Jaundone Fermin bezpera egunean.

Iruñe'an, 1972 Irailan.

DIARIO DE NAVARRA convoca el "VII PREMIO AXULAR" de narraciones y cuentos populares en euskera entre los Centros de Enseñanza Primaria de Navarra, en homenaje al ilustre navarro, príncipe de los escritores de lengua vasca.

El premio se ajustará a las bases siguientes:

1.º Podrán concurrir los niños y niñas en edad escolar que envíen sus relaciones en vascuence al DIARIO DE NAVARRA, con la indicación "PARA EL CONCURSO DE CUENTOS VASCOS".

2.º Los trabajos, de una extensión de dos cuartillas, deberán acreditarse como originales del autor, mediante la firma del maestro, superior o sacerdote del Centro respectivo.

3.º Al término del Concurso se otorgará el PREMIO "AXULAR" y su importe de 1.500 pesetas de primer premio, y de 750 pesetas el segundo premio, y serán entregados respectivamente, tanto a los autores de los dos mejores trabajos publicados, como a sus maestros, superiores o sacerdotes.

Asímismo los trabajos merecedores de su inserción en DIARIO DE NAVARRA durante el Curso 1972-73, serán gratificados con 150 pesetas.

4.º El tema del PREMIO "AXULAR", es de libre elección y podrá versar sobre sucesos del pueblo, fiestas y excursiones, con preferencia a los cuentos y leyendas.

5.ºEl mérito preferente será la espontaneidad, siendo desechados los que acusen la ayuda de persona mayor. Por la misma razón, en la puntuación no serán tenidas en cuenta las posibles faltas de ortografía. Así que deben ser enviados los relatos tal como son escritos por los niños, sin corrección ninguna.

6.º La presente convocatoria es valedera para los trabajos presentados hasta el día 16 de junio de 1973. El premio será otorgado y publicado en la víspera de San Fermín, Patrón de Navarra.

Pamplona, septiembre 1972.

Gure Ikastolak (II)

EREINTZA

Naparroan euskeraren alde egindako lan ixilak bere ondorea ekarri du. Uzta aberatsa ikusten hasia da. Oso atzean geldituak dira lehenbiziko urratsak: 1957 garren urteraino itzuli beherko ginuke iturritik urak hartzekotan.

EUSKERAREN ALDEKO SAILA

Nekazarien ereintza onetan bezala, lurra iraultze sakon bat izandu zuen oraiko euskal giroak. Denok dakigunez, gaizki ikusia zen euskera gure herritan. Nolabeiteko zorriz betea ikusten zuen jendeak. Politika kutsua ekartzen zien gogora. Ezin zen hitzik atera: gorria.

Garai hartako Diputazioan izan zen gizon bat bere kezkak adierazteko lotsarik gabe agertu zena: **Migel Gortari,** lendakari jauna. Jakintzaren alorrean hutsune latza bezala ikusi zuen gure hizkuntza zaharraren baztartze hau eta, zerbait egitekotan Diputazioaren aldetik egin beharko zela iduritzen zitzaion. Hortik sortu zen "Príncipe de Viana-ren" barnean **"Euskeraren aldeko saila".** Inoiz gertatu ez zena, Etxe-Haundian atari bat ideki zion gizon honek euskerari, eta ofizialtasunean sartu nafar hizkuntza. Gure errege haundienen denboran ere ezagutu ez zena. Askorentzat hau da Gortari jaunaren ezaugarri nagusia; egin zuen gauzarik haundiena. Dirua baino lehenago bai da gizamaila eta jakintza. Gutxi dira hortaz jabetzen direnak.

EUSKAL HAURREN SARIKETA

Saila honen eginkizun nagusia euskal giroa sortzea zen; **"Fomento",** zion erderaz. Ezin zen orduan beste gauza haundirik eskatu. Zerbaitetatik hasi behar eta, euskeraz zekiten haurrei sariak ematen abiatu ziren gizon prestu eta euskaltzale jator. batzuk. Aurrezki kutxan diru mordotxo bat eskaintzen zaien, ez gauza haundia baina, **Diputazioaren izenean** emana. Horrek zuen gehienik balio. Eta gero, sariaren agiria. Bertsolari eta kantari, Peru Txiki eta Aita Felipe, festa herrikoiak izaten ziren. Politak.

Eta lan hau sakona zela esan dugu hasieran? Haur kontua, axaleko iduri du... Hamabost urteren buruan esana da orai dioguna: lurra iraultze sakona izan zen hura. **"Lehen euskera anka azpiratzen, eta orai saritzen!",** zioten batzuk harriturik.

"Beranduegi!", entzuten genuien beste askori. **"Duela hogei urte izan balitz!** Edo, **Garaia zen! Nahiko lotsa pasatu dugu gure denboran!"** Amatxi zahar batek ziona: **"izarretaraino jasoko al-duzue behingoan! Nere poza..."**

Egia da gorroto bizia zioten basapisti lotsagarriak ere ezagutu genituela herri hoietan. Hor dabiltz beren mamukeri ilunarekin arrastaka; ez die inork kasorik egiten.

Haurren sariketak jende askoren begiak ideki zituen. Euskera geuria zela eta balio haundiko hizkuntza, esaten zitzaien. Hiriko jaunak heldu ziren hori esatera; eta **Diputazioaren izenean.** Ez zen, beraz, gaizki ikusia euskeraz hitzegitea. Ez zen politika kontua. Argibide.

Orai, euskeraren alde egindako lan ixila bere uzta ematen haisa da; baina ez da bat bateko lana izan. Duela hamabost urte, berendako irabazirik gabe, herriz herri hasia zuten gure artean diren gizon batzuk, lurra iraultzeko lan aztuna. Eta ez zaie behin ere damutu.

SAGI